

## 39 - FAGOR SAN ANDRES

### 1. HELBURUAK:

- 1 Industriara bideratutako gunea finkatzea, zenbait ordezkatzeko zein eraikin berri eraikitzea ahalbideratuz.
- 2 Kamioientzako aparkaleku berezia sortzea.
- 3 Esparruko urbanizazio lanak bukatzea.

### 2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Hirilurra
ESPARRUAREN AZALERA:	150.577 m <sup>2</sup>
ERABILERA OROKORRA:	Jarduera ekonomikoa
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	<p>Esparruaren barruan geratzen diren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Deba ibaiaren zatia</li> <li>- Bide-sare nagusian sartuta dagoen zeharbide zaharraren zatia</li> <li>- Deba bailarako bidegorriaren zatia</li> <li>- Mendi-ibilbideen sare nagusiaren zatia</li> </ul>
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	72.914 m <sup>2</sup> (a)
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	72.914 m <sup>2</sup> (a)
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	59.555 m <sup>2</sup> (h) (36 artikulua)
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Fagor Arrasateren eraikin nagusia
EGITARAUA:	Egikaritzen

### 3. BEREGANATUTAKO ANTOLAMENDUA:

AE 60.- FAGOR SAN ANDRES esparruko plan berezia, Udal Plenoak 2011ko apirilaren 7an behin betikoz onartutakoa, bereganatzen du HAPO honek.

### 4. ANTOLAMENDU XEHATUA:

HIRILUR MOTA:	Finkatugabea
ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:	Bereganatua (A4)
JARDUKETAREN EREMUA:	Esparrua bera
JARDUKETA ERA:	Hitzarmen-sistema (K4)
ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):	
- Eremu zabal eta berdeguneak .....	8.992 m <sup>2</sup> (l)
- Aparkalekuak .....	730

- Zeharbide zaharraren ondoan dijoan oinezkoen ibilbidea egokitu egin beharko da.

#### ERABILERA ARAUBIDEA:

- E. ohikoena: Industria handi jarduera (88 artikulua)
- Gainontzean, onartutako plan bereziaren arabera

ERAIKIGARRITASUN XEHATUA:	Onartutako plan bereziak zehaztu du
ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA:	Onartutako plan bereziaren arabera
ESKUHAZTE GUNEA:	Plan bereziak bi eskuhazte gune zehaztu ditu

#### BESTE BATZUK:

1. Gaur egungo eraikinak antolamenduarekin bat datozen ala ez bereganatutako planak zehaztu du.
2. Hirigintza zamen eta egin beharreko lagapenen inguruan plan bereziak jasotakoa loteslea izango da eta ez zaio ezer gehiago erantsi beharko.
3. Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko 36 artikuluan jasotako laukia loteslea da.

### 5. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 "Ibaiak eta errekek antolatzen diren lurraldearen arloko plan" -ren arabera, Deba ibaiarekiko lehen 10 metroan edozein eraikin berri egiteko Ur Agentziaren baimena lortu beharko da.
- 2 IHOBEK eginiko "polutzaiak izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inventario" -ren arabera esparruan kutsatutako lurzorua egon daiteke (186 artikulua).
- 3 Esparrua Hegoaldeko Deba-ko (39.-FAGOR SAN ANDRES eta 40.-MUZIBAR) jardueren poligonoan txertatzen da, non merkataritza-erabileretara 15.000 m<sup>2</sup>(e) bideratu daitezke.